



HERRI BATZARRA ITSASON 2021ko maiatzaren 8an, larunbata, 17:30etan

Itsasoar guztioi adeitasunez,

Jarraian, 2021ko maiatzaren 8an Itsason burututako HERRI BATZARREKO AKTA jasotzen da.

1.- Urriko batzarraz geroztik Udalak emandako pausoak

Azpiegiturei dagokienez

- Alegiako errepidearen bulebarizazioa eta hesi berria
- Itsasoko jolas parkea
- Udaletxeko obraren jarraipena: etxebizitza, eguzki plakak, instalazio elektrikoak, berogailua, eskailera-igogailua, parrilla
- Ostaturako altzari berriak
- Saneamenduko obra



Ekimen sozio-kulturalei dagokienez

- Azaroaren 25a: Euskaraldia eta Emakumeen Indarkeriaren Nazioarteko eguna ("Euskara eta Feminismoa bidelagun" dokumentala eta solasaldia)
- Jubilatuen Eguneko loteak
- Herriko Produktuen erakuslehoia
- Gabon jaietako bideoa
- Santa Ageda koplak
- Martxoaren 8a: Emakume Langileen Nazioarteko eguna
- Natur Ondarearen Kontserbazioa (landaketak, kimaketak, Zuhaitz eguna...)
- Udaberriko auzolana apirilaren 24an (ondoren afari-merienda herriko produktuekin)



2.- Ezkioko ordezkariekin adostutakoak

- Itsason Udal bulegoa, Administrariaren eta Gizarte langilearen ordutegia
- Aurrekontu bereiztuak (sarrera eta gastu konpartituak %26,74an)
- Hirigintzako kontsultak, teknikoen txostenak
- HAPO berritzea Ezkio-Itsaso mailan
- Bi astez behin Itsason dauzkagun gaiak partekatu eta informazioa trukatu
- Gai konkretuak dagozkien zinegotzi arduradunekin (Narrasperen lanak,...)

3.- Foru Aldundian maiatzaren 3an Auzo Udalaren inguruan izandako bilera

- Aldundira idatzi adostua (urriaren 9an): Auzo Udala sortzeko eskaera
- Bileran Eider Mendoza Diputatua, arlo juridikoko arduradunak, Gorka Sasieta, Tomas Etxaniz eta Martin Iparragirre idazkaria izan ziren.
 - *Izaera juridikoari dagokionez, Nafarroako aurrekari bat kontuan izanda, aurrera egin litekeela ondorioztatu dute egindako azterketaren ondoren
 - *Gaur egungo biztanleriaren baldintza (500), Batzar Nagusietako alderdiekin landu behar da, Foru Arauaren aldaketa adosteko.
- Epeen aurreikuspena:
 - *6 hilabete: Foru Arauaren aldaketa onartzea
 - *6-8 hilabete: Auzo Udala sortzeko espedientea eta galdeketa

4.- 2021erako aurrekontuak

GASTU KONPARTITUAK (biztanleriaren proportzioan, %26,74):

- Langileen soldatak
- Eskola, haurtzaindegia eta mediku etxearen mantenimendu gastuak eta inbertsioak
- Biltegia eta Narrasperen lanekin lotutakoak

ITSASORAKO AURREIKUSITAKO INBERTSIOAK (2021):

- Natur ondarearen proiektua (San Lorentzo azpiko terreno erosketa, etab...)
- Baserritarako bideen konponketak
- Ganbarako areto balioanitzerako ekipamendua
- Auzo Udala sortzeko parte hartze prozesua

5.- Udaletxeko Ganbara Aretoa: erabilera balioanitza. Itsaso2030 Plan estrategikoan aurreikusitakoez gain, herritarren interesak jaso eta antolatzeko prozesua zehaztu

- Alde batetik **Siadecok Itsaso 2030 plan estrategikoaren ekintza planean jasotako ideiak** azpimarratu ziren, esate baterako, bilera gela, Co-working, ikasgela, liburutegia, erakusketa aretoa, formazio saioetarako aretoa,...
- Beste alde batetik, **ideia berrien jasoketa** ere egin zen eta beste jarduera batzuetarako erabilpena ere eskatu zen: Herrian dauden Junta eta Batzordeetako bilerak egiteko eta hauen dokumentazioa gordetzeko lekua izatea, Herriko produktuen txokoa, Ondare eta Argazki Zaharren katalogaziorako, Talde Feministarentzat espazioa izatea, Solasaldi literarioak egiteko lekua,...
- Honek guztiak **ekipamendu, funtzionamendu eta antolaketa aurreikuspen bat** eskatzen duenez, interesa dutenekin bilera bat antolatzea erabaki zen. Bilera maiatzaren 14an izango da, arratsaldeko 7etan Ganbaran.



Adeitasunez,

Itsasoko Batzordea

Itsason, 2021eko maitzaren 12an